DOCENTIAZ PROGRAMAREN bigarren deialdia
UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren ebaluazio programa

# Ikastegiko Kalitate Batzordearen txostenaren eskuliburua

KALITATE ETA IKASKETA BERRIKUNTZAKO ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE CALIDAD E INNOVACIÓN DOCENTE
**IRAKASLANA EBALUATZEKO ZERBITZUA / SERVICIO DE EVALUACIÓN DOCENTE**

2011ko urria

AURKIBIDEA


1. DOCENTIAZ aplikazioa 3

2. Ikastegiko Kalitate Batzordearen txostena 3

A. Irakasleen betebeharrak formalki betetzea 6

B. 1 dimentsioa. Irakatsi eta ikasteko prozesuaren plangintza eta garapena 7

C. 2 dimentsioa. Emaitzak 7

D. 3 dimentsioa. Irakasleen garapen profesionala 9

## 1. DOCENTIAZ aplikazioa

UPV/EHUk irakasleen irakaskuntza jarduera ebaluatzeko DOCENTIAZ programaren euskarri gisa aplikazio informatiko bat garatu du. Aplikazio honek UPV/EHUko datu base instituzionalak ditu oinarri (batez ere GAUR) eta berari esker honako hauek egin ahal dira:

a) Irakaslea bazara, ebaluazio eskaera eta autotxostena bide telematikoz egin ditzakezu.
b) Ikastegiko Kalitate Batzordeko kide bazara, aldiz, irakasleen irakaskuntza jarduerari buruzko txostena bide telematikoz egin dezakezu.
c) Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeko kide izanez gero, irakasleek, ikasleek nahiz Ikastegiko Kalitate Batzordeko kideek emandako informazioa ikus dezakezu. Halaber, txostenak aplikazioaren laguntzaz egiteko aukera duzu.

**Hona hemen DOCENTIAZ aplikaziorako sarbidea:**
https://lgpx09.lg.ehu.es/Exp_Docentiazv2.nsf

Helbide honetan sakatzerakoan pantaila hau agertuko zaizu, LDAP kontuaren erabiltzailea eta pasahitza eskatuz:




## 2. Ikastegiko Kalitate Batzordearen txostena

Ikastegiko Kalitate Batzordeko kideek –aurrerantzean, IKB– DOCENTIAZ programaren bigarren deialdian parte hartuko duten irakasleen irakas jarduerari buruzko txostena egin behar dute.

IKB UPV/EHUko irakasleen irakas jarduerari buruzko ebaluazio programako informazio iturrietako bat da. Hala, bertako kideek beren eskumeneko alderdien berri baino ez dute emango, eta, horretarako, elementu alderagarrietan oinarrituko dute informazioa, hau da: Ikuskatze Zerbitzuaren txostenak, ikasleen iritzia biltzen duten txostenak, arrakasta tasak, ikasle gidaren edukia, etab.

Hona hemen IKBren txostenak aztertzen dituen alderdiak: betebeharrak formalki betetzea; ikasle gida testuinguruan jartzea, bai titulazioan bai ikastegian; koordinazio jarduerak egitea; arrakasta tasak irakurtzea; eta ikasleen iritzia ikastegiaren testuinguruan interpretatzea. Azkenik, prestakuntza eta berrikuntza jardueren berri eman dezatela eskatzen zaie IKBko kideei, baita irakaslana hobetzeko ikastegian antola daitezkeen jardueren berri ere.

Asmo horrekin, Batzordeko presidenteak –edo honek bere ordez izendatzen duenak– LDAP jarri behar du DOCENTIAZ aplikaziorako sarbide pantailan.

Hala, Batzordearen txostena agertuko zaigu, ezkerraldeko zuhaitzean sakatuta, "Izapidetze bidean den dok." atalaren azpian, "Ikastegiko Kalitate Batzordearen txostena" esaldian. Ondoren, DOCENTIAZ programan parte hartu behar duten irakasleen zerrenda ikusi dugu, espediente zenbakiaren arabera ordenatuta.

1. irudia




Irakasle bakoitzari buruz txosten bana egin behar dugu. Horretarako, lehenik eta behin, "Ebaluazio eskaera" hautatu behar dugu (ikusi 2. irudia), irakasleak ebaluazio eskaeran aukeratutako irakasgaia eta erantsitako ikasle gida kontsultatzeko. Jakina denez, ikasle gida Kalitate Batzordeak 1 dimentsioari

(hots, Irakatsi eta ikasteko prozesuaren plangintza eta garapenari) buruzko txostena egiteko erreferentzia dokumentua da.

2. irudia




Ikasle gida inprimatzean, edo Batzordeak lanerako duen ordenagailuan gorde ostean, txostena bete behar dugu, gezi gorriz markatutako esaldiaren gainean sakatuta: "Ikastegiko Kalitate Batzordearen txostena".

Ondoren, 3. irudiko pantaila agertuko zaigu. Horren arabera, "Editatu" sakatu behar dugu, Batzordeak txostena osa dezan.

3. irudia




Txostena betetzerakoan, leihoaren goiko aldeko fitxetan sakatu behar dugu (Irakasleen betebeharrak formalki betetzea: 1 dimentsioa, 2 dimentsioa eta, azkenik, 3 dimentsioa).

Fitxa bakoitzean, DOCENTIAZ programa osatzen duten dimentsioen datuak deskargatzen dira. Ikusiko dugunez, atal guztietan taula ireki bat dago,

Kalitate Batzordeko kideen analisia adierazteko. Gainera, taulak ez du karaktere mugarik.

## A. Irakasleen betebeharrak formalki betetzea

Lehenengo atalean, Ikastegiko Kalitate Batzordeko kideei bi alderdiren inguruko informazioa emateko eskatuko diegu: irakasleari buruzko kexarik egon den ala ez ba ote dakiten; eta UPV/EHUko Ikuskatze Zerbitzutik txostenik jaso duten.

4. irudia



## B. 1 dimentsioa. Irakatsi eta ikasteko prozesuaren plangintza eta garapena

1 dimentsioan, Batzordeko kideek adierazi behar dute ea irakasleak aurkeztu duen ikasle gida tituluko gidaren eta irakasgaiko irakaskuntza gidaren planteamenduekin bat datorren.

5. irudia




## C. 2 dimentsioa. Emaitzak

2 dimentsioari dagokionez, irakasleak autotxostenerako aukeratu duen irakasgaiaren arrakasta txostenak eskainiko ditugu, IKBko kideek datu hau eta taldeko/ikasturteko batezbestekoarekin aldera dezaten.

6. irudia



Derrigorrezko irakasgaietan:

Taldea-Irakasgaia tasak (asig-grupo) aipatu taldean irakasgai horretara aurkeztu direnetatik gainditu dutenen portzentajea adierazten du. Adibidez, “0,92” zifra agertzen bazaigu, aurkeztutakoen % 92k gainditu dutela esan nahi du.

Taldea-Ikasturtea tasa talde horretan ikasturte horretako irakasgai guztietara aurkeztu direnetatik gainditu dituztenen portzentajea da.

Ikasturte tasa titulazio horretako ikasturte horretan dauden talde guztiei eta ematen diren irakasgai guztiei erreparatuz aurkeztu direnetatik gainditu dutenen portzentajea da. Ikasturte/Maila bakoitzerako datu bakarra da. Azken zutabean, irakasleak irakasgaia ematen daramatzan urteak ageri dira.

Euskarazko taldea-maila epigrafean edo 61 taldeak epigrafean “0” agertzen denetan, ez dago talde-mailarik hizkuntza horretan.

Hautazko irakasgaietan:

Irakasgaia-Taldea (asig-grupo) tasa bakarrik ageri da, eta hautazko irakasgai horretan matrikulatuta dauden titulazio jakin bateko ikasleen portzentajeari dagokion zutabe bat dago (%alumnos mat. Titul.).

Bigarren atalean, *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestaren* laburpen-txostena dugu. Era berean, IKBk ikasleen iritzia biltzen duten titulazioaren eta sailaren txostenak izango ditu, irakaslearen banakako emaitzak testuinguruan jartzearren. Azken bi txostenak posta elektronikoz bidaliko dizkio IEZk IKBko presidenteari.

7. irudia



## D. 3 dimentsioa. Irakasleen garapen profesionala

Azken dimentsioan, irakasleen garapen profesionalaren berri emango dugu, UPV/EHUn irakaskuntza bikaina lortzeko asmoz.

Lehenengo atalak erakundeen koordinazioaz dihardu, eta titulazio, ikasturte, modulu eta irakasgaia koordinatzeari dagokionez irakasleek autotxostenean emandako informazioa helarazten du. Honen helburua da IKBko kideek ezagutaraztea, dituzten frogetan oinarrituta, nola koordinatzen duen irakasleak irakas jarduera (ikusi 8. eta 9. irudiak)

8. irudia



9. irudia




Azkenik, ikastegiak antolatu eta ikastegiarentzat egiten diren eta irakasleak koordinatu dituen prestakuntza eta berrikuntza jarduerei eta irakaslana hobetzekoei buruzko informazioa eskatzen dugu.

10. irudia



Txostena amaitutzat ematean, “bidali” botoia sakatu behar dugu, pantailaren goiko aldean, eskuinaldean. Ondoren, mezu hau ikusiko dugu:

11. Irudia




“Onartu” sakatzean, txostena paperean ere eskura dezakegu, “Sortu PDF” botoia sakatuta, pantailaren beheko aldean. Ondoren, “Erantsitako dokumentuak eta artxiboak” atalaren eskuinaldeko gezia sakatu behar dugu, Ikastegiko Kalitate Batzordearen txostenaren PDF formatua inprimatzeko.